

Euskal lehen sektorean IKT ekipamenduek hobera, baina urruti oraindik ere gainerako sektoreetatik gehiegizko atomizazioagatik

10 langile edo gehiagoko establezimenduetan IKTak gainerako sektoreetan bezalatsu

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko lehen sektoreko establezimenduetako IKT (Informazio eta Komunikazioaren Teknologia) ekipamenduek hobera egin dute 2009-2013 aldian. Erabilpen-portzentajeak baxu diraute tamaina txikiak (%96,2tan bi langile edo gutxiago) ekipamenduok eskuratzea zailtzen duelako.

Teknologia edukitzeari dagokionez, lehen sektoreko establezimenduetan lortzen diren ehunekoak oso urruti daude euskal ekonomiako gainerako sektoreetan lortzen direnetatik. Mugikorretan ez (%71,7) baina gainerako oinarritzko ekipamenduetan portzentajeak txikiak dira beste sektoreen aldean: Ordenagailuak %18,6), Internet (%16,8), Posta elektronikoa (%15,8). Web orria enpresen %2,7k du.

1. Taula: Informazioaren teknologien ekipamenduak Euskal AEko establezimenduetan, jarduera-adarraren eta enplegu-geruzaren arabera (%)

	Ordenagailu pertsonala		Internet		Posta elektronikoa		Sakelako telefonoa		Web orria	
	2009	2013	2009	2013	2009	2013	2009	2013	2009	2013
Guztira										
Lehen Sektorea	14,8	18,6	13,6	16,8	11,8	15,8	51,5	71,7	2,4	2,7
Nekazaritza	13,8	17,7	12,9	16,0	11,1	15,0	50,6	71,3	2,3	2,6
Arrantza	72,2	77,0	54,3	74,1	54,4	75,3	100,0	99,1	10,0	8,4
Industria	82,9	87,4	77,0	84,7	76,0	85,1	85,5	89,8	42,9	57,7
Eraikuntza	74,1	80,5	66,8	78,7	62,8	79,8	91,1	89,3	17,1	29,8
Zerbitzuak	75,7	81,9	69,5	78,3	66,8	77,8	77,1	82,0	34,3	44,1
10 langile edo gehiago										
Lehen Sektorea	96,6	100,0	82,6	100,0	80,1	100,0	100,0	100,0	20,7	17,2
Industria	98,2	98,7	96,8	98,3	96,5	98,3	94,2	96,8	71,1	85,6
Eraikuntza	99,0	97,1	98,0	98,5	98,0	98,5	98,5	100,0	59,9	78,6
Zerbitzuak	98,1	98,7	95,1	96,5	95,5	97,3	90,1	92,0	74,2	83,4

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea eta enpresak


Egoera oso bestelakoa da enpresen tamaina kontuan hartuz gero. 10 langile edo gehiagokoetan, den-denek dauzkate ordenagailua, Internet, posta elektronikoa eta mugikorra. Web orria dutenak (%17,2) halere askoz gutxiago dira beste sektoreen aldean.

Arrantza enpresek IKT ekipamendu gehiago dituzte nekazaritzakoek baino

Aipagarria da lehen sektoreko ehunekoak oso ezberdinak direla nekazaritzako enpresen eta arrantzakoen artean. Azken horiek askoz ere ehuneko handiagoak dituzte ekipamendutan. Datu horrek ez du inolako eraginik sektore osoan, arrantzakoak enpresen %1,4 baitira.

Nekazaritzako portzentajeak: %71,3 mugikorretan; %17,7 ordenagailuetan; %16,0 Interneten; %15,0 posta elektronikoan. Arrantzan askoz ere ehuneko handiagoak: %99,1 mugikorretan; %77,0 ordenagailuetan; %74,1 Interneten; %75,3 posta elektronikoan. Web orria, %2,6 nekazaritzan eta %8,4 arrantzan.

1. grafikoa: IKT ekipamenduak dauzkaten establezimenduak, jarduera-sektoreen arabera. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea

Kontuan izan behar da alde horiek ez direla jardueragatik soilik gertatzen; ustategien tamainak ere badu eragina. Nekazaritzako establezimendu ia guztiak 10 langile edo gutxiagokoak dira; arrantzakoetan tamaina ez da hain uniforme.

Interneten ADSL lerroak (%69,1) nagusi konexio finkoetan, gainerako sektoreetan bezala. Ondoren, modema (%10,7), zuntz optikodun kablea (%4,4), RDSI lerroak (%3,8), beste konexio finkoak (%11,1). Konexio finkoetan nabarmentzekoak Wimax bezalakoak, helmen handiagoko kablerik gabeko teknologiak landa-inguruetan; eta sateliteak arrantzan.

Konexio mugikorrek lehen sektorean Internet duten establezimenduen %42,2; %37,6 mugikorrak eta %19,0 sarbide zabaldun modemaz.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea gaiari buruzko prentsa-ohar gehiago